

DIRU-SARRERAK

Taldea: Iker, Beñat, Oier, Manex eta Ainhitze

Idea: Aparkalekurako aplikazioa eta produktua

Zerbitzuaren prezioa ibilgailuaren arabera finkatzen da. Hau da, gasolina, gasoil eta bestelakoek 4,99€ ordaindu beharko dute. Elektriko eta hibridoek, aldiz, 2,99€. Garbi ikusten da enpresa honek energia berriztagarri eta ibilgailu hauengatik egiten duen apustua. Gure helburu nagusia kontsumitzaileak dituzten beharrak asetzean diren arren, helburutzat dugun beste faktorea gure ingurumena da, eta horregatik erraztasunak izango dituzte aplikazioa erabiltzeko honelako ibilgailuak dituztenei. Hau izen-ematean erregistratu beharko da, matrikularekin batera. Iruzurra egitea ezinezkoa izango da.

Diru iturria izango da, baita ere, aplikazioan txertatuko ditugun iragarki ezberdinak. Iragarki bakoitzarekin eztabaidatuko dugu bakoitzaren prezioa eta tarifa ezberdinak. Gutxi gorabehera, bost euroko prezioa izango du gure aplikazioan enpresa baten iragarkia azaltzeak. Bestalde, udalari ideia ona irudituko zaiolakoan gaude, hartara haiek kexa gutxiago jasoko dituzte, eta guk trukean, diru-laguntzak jasoko ditugu.

Ordaintzeko hainbat bide izango ditugu. Besteak beste, transferentzia bidez, Pay Pal erabiliaz, txartelarekin, Google Pay, Apple Pay... Hau oso eroso da automatikoki ordaindu eta aplikazioa arazorik gabe erabiltzen jarraitu ahal izateko. Hilabeteka ordaindu beharko da aplikazioaren erabilera.

KONTZEPTUA	DIRU-SARRERAK
Ibilgailu elektriko eta hibridoek tarifa (2,99€)	$800 \times 2,99 = 2.392€$
Gasolina eta diesel ibilgailuak (4,99€)	$5700 \times 4,99 = 28.423€$
Aplikazioko iragarkiak	$300 \times 5 = 1.500€$
Udaleko diru-laguntza	3.000€
DENERA	35.315€